



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

2023WDI10007

IBARRAKO UDALAREN ETA EUSKAL FONDORAEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ibarran, 2023ko ekainaren 14an

BILDUTAKOAK

Batetik, **Igor ZAPIRAIN LIZARRIBAR** jauna **35776801W** NAN zenbakia duena eta Ibarrako Udaleko Alkatea.

Bestetik, **Ernesto SAINZ LANCHARES** jn. **EUSKAL FONDOA** Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkarteko lehendakari gisa. Elkarrekin Aiete Jauregian du egoitza (Aiete Jauregia 65), **G-48772487 IFZ zenbakidun, Bazkunen Erroldan AS/B/05506/1995 zenbakidun** eta Elkarrekin Erregistroan inskribaturik dago, 1.903 zenbakiarekin.

Bi alderdien arteko interesaren ondorioz, **HITZARMEN** hau egin dute, ondoko klausula hauen arabera.

ADIERAZPENAK

I.- Ibarrako udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

II.- Euskal Fondoak, bere estatutuekin bat etorritik, irabazi asmorik gabeko entitate bat da, tokiko euskal erakundeek 1996an eratua, Euskal Herriko lankidetzarako deszentralizaturiko koordinazio eta laguntza tresna gisa, eta bere kideek lankidetzarako eragile aktiboen rola har dezaten bultzatzen du. Hori guztia, programekiko autonomia eta identifikazio lokala mantenduz, eta ekimen bateratu, informazio eta esperientzien trukaketa, laguntza teknikoa eta abarren bidez, eraginkortasun handiago lortzeko asmoz.

IBARRA elkarteko kidea da 1996 urtetik.

III.- Euskal Fondoaren helburuak honako hauek dira:

- a) Garatze bidean diren herrialdeekiko lankidetzarako lagundu, garapen ekonomiko edo sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.
- b) Elkarlan deszentralizatuan tokiko erakundearen parte-hartzea bultzatu eta haien arteko koordinazioa indartu. Garapenerako lankidetzarako eta nazioarteko harremanei buruzko aholkularitza eman tokiko erakundeekiko. Garapen bidean diren herrien garapen jasangarria bultzatuko duten egitasmo eta programak lagundu, eta, kasua bada, kudeatu. Hau burutzeko irizpideak berdintasuna eta lankidetzarako izango dira, bai eta kulturekiko eta komunitate bakoitzaren nortasunarekiko errespetua ere.
- c) Kanpaina eta informazio egokien bidez, Garapen bidean diren herriekiko elkarlan egitasmoetan hiritarrek parte har dezatela eragin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tokiko Erakundeen eta GGKE, elkartasun talde eta garapenerako lankidetzari lotutako beste instituzio edo erakundeen arteko harremanak eta elkarkidetzea piztu. Iparra-Hegoa harremani buruzko eta garapen gaien inguruko informazioa lantzen eta hedatzen lagundu; bakarrik edota beste erakunde batzuekin batera topaketak, hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak, kongresuak eta abar burutu eta sustatu. Instituzio ofizial, entitate eta asoziazioen ahaleginak sustatu eta bultzatu, horrela nazioarteko ordena ekonomiko berriaren sustapenerako iritzi-giro egokia landu ahal izateko.

Hegoaldeko herrialdeetan giza-eskubideek hasten dituzten eraso larri guztiak Euskal Herritik salatuko dituen hots etiko kolektiboa izan, ezarririk dauden legezko bideen medioz ordezkari politikoaren edozein esparrutan elkartasunaren eta elkarlanaren alde nolnahi lege-edo erabaki-proposamen aurkeztu ahal izango duena.

IV.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

V.- Entitatea ez dagoela 38/2003 legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. Artikulu 2. Eta 3. Zatieta dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debekuaren baten pean.

VI.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

VII.- Ibarako Udalaren 2023ko udal aurrekontuan 1.07.231.00.481.01 2023 partida agertzen dela 6.000 euro euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VIII.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerrak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

IX.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21koa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.,

X.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarako udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako Ibarako Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO, 38 zb), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

XI.- 298/2019 Alkate Dekretuari jarraiki, dirulaguntza hau emateko organo eskuduna Alkatea edo zinegotzi delegatua izango da.

XII.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu emango da, eta baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera ere.

Horiek horrela, lankidetzak-hitzarmen hau sinatzen dute, ondoko klausula hauen arabera:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da IBARRAko Udala eta Euskal Fondoak elkarrekin lanean aritzea bientzat interesgarri irizitako garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten programak garatzeko.

Esku hartzeko arloak, alderdiek elkarren intereskotzat jotzen dituzten beste hainbaten artean, honako hauek izan ahalko dira:

- **Garapenerako nazioarteko lankidetzak:** Erreferentzia-esparru gisa giza garapen jasagarria duten programa eta proiektuak, beti ere zuzenean egitura politiko, sozial eta ekonomikoak eraldatzekoak badira, epe luzera pobrezia aurka borrokatzeko prozesuetan lagunduz eta subjektu sozial aske, aktibo, parte-hartzaile eta kontzientek finkatuz, elkartasuna, koerantzukizuna, ekitatea eta justizia lortu nahian.
- **Giza ekintza:** Laguntza, sorospen, babes eta berreraikuntzako jarduerak, bai eta giza eskubideak aldezteko lanak, lekukotzak, salaketak, presio politikoa eta lagun egitea ere, xedezat sufrimendua arintzea, iraupena bermatzea, hondamendietako biktimen eskubideak babestea eta haien ahultasuna gutxitzea badute.
- **Garapen Inguruko Sentsibilizazioa eta Heziketa:** IBARRA herrialde txiroetako biztanleek bizi duten egoeraren eta errealitate horren problematikaren inguruan informatu, prestatu, sentsibilizatu eta kontzientziatuko dituzten ekintzak, elkartasuna bultzatuko dutenak eta emakumeek eta gizonek bidezko, elkartasunezko eta ekitatezko garapeneredu baten sorkuntzan parte har dezaten sustatuko dutenak, ikastaroen, konferentzien, mintegi, argitalpen, ikerketa, erakusketa eta bestelakoen bidez.
- Alderdiek bien intereskotzat jotzen duten beste edozein arlo.

BIGARRENA: Euskal Fondoaren konpromisoak.

Euskal Fondoak erantzungo du, IBARRAko Udalaren aurrean, hitzarmen honen esparruan egindako lankidetzak-proiektuen kudeaketaren eta gauzatzearen inguruan. Hitzarmenean ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzen ez badira, Euskal Fondoak itzuli egin beharko ditu funtsak, 38/2003 Legearen 37. Artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Era berean, Euskal Fondoak onartu egin beharko ditu funtsen kudeaketa edo bestelakoak egiaztatzeko jarduerak, 38/2003 Legearen 15.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- IBARRAko Udalaren konpromisoak.

IBARRAko Udalak hitzarmen honen esparruan egiten dituen ekarpenak ekonomikoak zein teknikoak izan ahalko dira, betiere Administrazioak baliabide tekniko erabilgarriak baditu, kasuan kasuko arlo edo sektorean, proiektuak eta jarduerak behar bezala garatzeko.



LAUGARRENA.- Finantza konpromisoak.

Ekintza Programetan adosten diren jarduerak eta proiektuak finantzatzeko direnak, lankidetzakontzeptuari dagozkionak.

Diru-laguntzen zenbatekoa, iraupena eta ordaintzeko era aurrekontua gauzatzeko unean-unean indarrean dauden arauen arabera zehaztuko dira. Oro har, dagokion Urteko Ekintza Planaren ezarritakoa alde batera utzita, urteko diru-laguntza bakoitzeko beharrezkoak diren izapideak eta betekizunak bete ondoren, aldi bakar batez eta modu aurreratuan egingo da ordainketa, inolako bermerik eskatu gabe; izan ere, Elkartearen eta IBARRAko Udalaren artean dagoen lankidetzakerperientzia luzea eta gogobetegarria da.

2023. urterako honako proiektuak finantzatzeko dira:

ERREF.	Egitasmoaren izena	Zenbatekoa
P355K	Tipitapako Las Cruces auzoan 480ml euri-drainatzea eraikitzea, zubi-kutxa eta kanaleta angeluzuzena, zehazki indartua eta 350ml-ko galtzada-harria duena.1.fasea (1/3) NIKARAGUA	3.000 euro
P363K	Gazuaniko, Auserdeko eta Mejidiko lantegiak babestea, eta Garraio eta Energia Ministerioari gas-bonbonakbanatzeko kamioi trakzio-burua ematea. MENDEBALDEKO SAHARA	3.000 euro

Aipatu kopurua 2023ko aurrekontuetako 1.07.231.00.481.01 2023 partidatik egingo da. Dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

BOSTGARRENA.- Justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarrao Udalaren IIII kapituluan diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina edo EUSKAL FONDOAK erabili ohi duen eredia onartzea.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazio aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea hiruhilabetekoa izango da jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

ZAZPIGARRENA.- Kontrol eta jarraipena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada.

ZORTZIGARRENA.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

BEDERATZIGARRENA: Euskararen erabilpena

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek ala eskatzen badute.

HAMARGARRENA Genero berdintasuna

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

HAMAİKAGARRENA. Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik erarortzen den guztiari dagokienean.

HAMABIGARRENA. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa duo Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoaden legediak arautzen dute.

HAMAHIRUGARRENA.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarrako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

HAMALAU GARRENA.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarrako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

HAMABOSTGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

HAMASEIGARRENA.- baimentzea

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarrako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

HAMAZAZPIGARRENA. Gardentasun ataria

Hitzarmenaren testua argitaratuko da. Gardentasunaren atarian eta udaletxeko iragarki taulan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta hala jasota gera dadin eta alderdien artean ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatu dute, hasieran adierazitako egunean eta lekuan.

Euskal Fondoako Lehendakaria

IBARRAKO Udala

Ernesto Sainz Lanchares

Igor Zapirain Lizarribar

**SAINZ
LANCHARE
S ERNESTO**
-
16280604P

Firmado digitalmente por:
SAINZ LANCHARES
ERNESTO - 16280604P
DN: CN = SAINZ
LANCHARES ERNESTO
- 16280604P C = ES
Fecha: 2023.06.23 13:09:
48 +02'00'



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023WDI10007-HITZARMENA/hitzarmena (EUSKAL FONDOA ERAKUNDEA)